

A27

Mari Lopezko ederreza...

Eskuizkribuko esku nagusia ez den batek aldaketa handiak sartu ditu testuan. Horregatik, kasu honetan, bi bertsio ematea erabaki dugu: lehenengo eskuarena (A27a) eta bigarren eskuak proposaturiko aldaketak (letrakera etzanez eman ditugunak) integraturik sortzen den bertsioa (A27b). Bigarren esku horrek bi erataria jokatu du: leku batzuetan, testuaren zuzenketak proposatu ditu, lehenengo eskuaren testua tatzatuaz; beste batzuetan, ez du lehenengo testua tatzatu, eta lerroarteetan proposatu ditu aldaerak, aukeran emanak balira bezala. Edozein kasutan ere, lehenengo bertsioan argiegi ez ziren pasarteak argitzeko dira aldaketa gehienak, Mari Lopezko esamesak zabaltzen ibili dela salatzeko:

- *ederreza* > *atrebidea* (ez ‘ausarta’, baizik eta ‘errespetu gabea’)
- *arren zaoza exilik* > *ez esan sekulan gaitzik*
- *Oi aserratu deraustazu, / zeurorrek hala gurarik* > *Berbarik asko esan ei duzu, / ene ausenzian eginik*
- *han ez dozuna kilzarik* > *han ez dozuna freurik*
- *ene laztana* > *gatx esalea*
- *Oin-eskuetan muin egiozu* > *Berba doilorrok gorde egizu*

Mari Lopezko Luzuriagan jaio eta Langarikan bizi den neska gaztea da (Luzuriaga eta Langarika biak dira Aguraingo eskualdean, zortzi kilometroko tartean); idazlearen osabaren etxean bizi da (neskame, seguruenik, testuan ezer ez dioen arren), baina askatasun gehiegi ematen diotela iruditzen zaio idazleari, eta horregatik aritu ahal izan dela esamesak zabaltzen (lehenengo bertsioaren arabera, mehatxu gisa esaten dio bere aurka gaizki esaten segitzen badu berak ere baduela zer esanik). Poemaren gai nagusia esamesen aurrean idazleak eman nahi duen erantzuna da, hortaz, baina bada bigarren gai bat ere, horren mende: idazlea mindurik dago, eta beste irain batekin erantzun nahi du esamesen aurka, Mari Lopez neska itsusia (*ederreza*) dela nabarmenduz (Peru Errotxan seme ezkongaiaren kontua ere hari horri eutsita ulertu behar dela uste dugu, seguruenik ez baitziren eskualdeko mutilik ederrenak izango).

Itxura guztien arabera benetako gertakarietan oinarritua da poema hau, eta, horrela bada, berebiziko garrantzia dute 39-40. bertso-lerroek (*Juramentu egiten jagot / hobian datzan amari*), izan ere hobian datzan ama Joan Perez Lazarragakoaren ama baldin bada, datu horrek ezartzen baitu poema honen eta ziur aski eskuizkribuaren *post quem* data, 1602koa hain zuzen, ziur baitakigu urte horretan oraindik bizirik zela Elena Saez Erdoñakoa, poetaren ama.

Dena den, gogoratu behar da esamesen gaia ez dela ezohikoa XVI-XVII. mendeko literatura-lanetan; Cervantesen *El coloquio de los perros* nobelan, adibidez, horren inguruko eztabaida azaltzen da (ikusitua Illades 2007).

A27a

<1201r> Mari Lopezko ederreza,¹
 arren zaoza² exilik,
 oi eta³ baldin gura badozu
 ez difinzen⁴ tatxarik.
 Oi haserratu deraustazu,⁵ 5
 zeurorrek hala gurarik;
 badanik bere,⁶ irabaziko

¹ *ederreza*: ‘batere edertasunik gabea, eder ez dena’ esan nahi du, dirudienez, hapax honek.

² *zaoza*: ‘egon zaitetz’.

³ *oi eta*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oi* eta *oita* betegarriak (bakanka hemengo *oi eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

⁴ *ez difinzen*: ‘ipin ez diezazuten’.

⁵ *haserratu deraustazu*: ‘haserrarazi nauzu’.

⁶ *badanik bere*: ‘hala ere’.

| | | |
|---------|--|----|
| | ez dozu gona barririk. ⁷ | |
| | Oita hobato esango eben | |
| | egon bazina exilik; | 10 |
| | oi bada bere, berba gureak | |
| | ez dizu emun lekurik. ⁸ | |
| | Luzuriagan jaio zinean, | |
| | Langarikan ⁹ zaoz ¹⁰ kalterik; ¹¹ | |
| | oi gutxiago esaterako | 15 |
| | nik ez dot pazenziarik. | |
| | Berbarik asko erraz dasaket, ¹² | |
| | zuk hala merezidurik; | |
| | zeure ahoan dozu agiri | |
| | han ¹³ ez dozuna ¹⁴ kilzarik. ¹⁵ | 20 |
| | Oi zu ederra izan ez arren, | |
| | nik ez daukat beharrik; ¹⁶ | |
| | oi honegaiti, ene laztana, ¹⁷ | |
| | ze eukaikezu ¹⁸ penarik. | |
| | Zerren zu balza ¹⁹ izanagaiti, | 25 |
| | asko da dama galantik; ²⁰ | |
| <1201v> | oi Langarikan egonagaiti | |
| | ez hartu soberbiarik. | |
| | Ezkondu gura baldin badozu, | |
| | asko daukezu ²¹ senarrik. | 30 |
| | Peru Errotzek ²² asko dauko | |

⁷ *irabaziko / ez dozu gona barririk*: ‘ez duzu berreskuratuko izen ona’ esan nahi du, gona moztea zelako izen txarreko emakumeari ezartzen zitzaion zigorra. Irakurketa horren indargarri da lerroartean erantsirik aldaketa: *irabazi ez dozu hazag onrarik* (A27b: 7-8).

⁸ *ez dizu emun lekurik*: ‘ez dizu eman hartarako (gaizki esaka ibiltzeko) arrazoirik’.

⁹ *Langarikan*: Beherago (A27a: 45) ikusiko denaren arabera, Maria Lopezko Joan Perez Lazarragakoren osabaren etxean dago, neskame seguruenik. Luzuriaga gaur Donemiliagako udalerriko herria da; Langarika izeneko herria (Iruraiz-Gaunako udalerria) zortzi kilometrotara dago, oinez; baina baliteke *Langarika* hemen ez izatea herria, Arriolako langarikatarren jauregia baino, hala deitzen baitzaio Gonzalez Langarikakoen etxeari, edo are Langarika herriko Langarika jauregia, hori ere Gonzalez Langarikakoena baitzen. Luzuriaga herria eta Langarika jauregia bereiztearen alde izan liteke batean *jaio zinean* eta bestean *zaoz* (eta *ez bizi zara*) aditzak bereiztea.

¹⁰ *zaoz*: ‘zagoz, zaude’.

¹¹ *kalterik*: ‘denon kaltetan, zoritxarrez’.

¹² *erraz dasaket*: ‘erraz esan dezaket’; *esan* aditzaren ahalera trinkoa.

¹³ *han*: Ahoan, hain zuzen.

¹⁴ *dozuna*: *-na* konpletiboa da.

¹⁵ *kilzarik*: ‘giltzarik’.

¹⁶ *beharrik*: ‘errurik’.

¹⁷ *ene laztana*: Hemen zentzu ironikoan erabilia dago, jakina.

¹⁸ *ze eukaikezu*: ‘ez ezazu eduki (geroan)’.

¹⁹ *balza*: ‘beltzarana’; edertasun-ereduaren kontrakoa zen beltzarana izatea, eta, hortaz, ‘itsusia’ esatea bezala da hemen.

²⁰ *asko da dama galantik*: ‘dama galant asko da(go)’.

²¹ *daukezu*: ‘izango dituzu’.

²² *Peru Errotzek*: Peru Errotx benetako pertsonaia ezaguna izan bide zen, baina ez daukagu haren inguruko beste informaziorik. *Peru* ponte-izena badago eskuizkribuko beste leku batean ere (B29: 81), eta ezaguna da bestela ere; *Errotx* goitizena dela dirudi, baina ez dugu aurkitu beste lekukotasunik. Hiztegi arruntean ‘amildegia’ esan nahi duenez, pentsatu dugu toponimoren batekin erlazionaturik izan litekeela (Arakilen, besteak beste, bada *Errotz* izeneko kontzejua, seguruenik beste etimologia batekoa bada ere).

etsean seme galantik;
 hareantxe bat²³ oi al badozu,
 bila ze zatez²⁴ besterik;
 uste badozu inon ez dala 35
 ha ta zu lako beste bi,
 ipirdietan²⁵ deikeozu
 erraz muin²⁶ biok alkarri.
 Juramentu egiten jagot²⁷
 hobian datzan amari,²⁸ 40
 nigan mihirik badafinzu,²⁹
 ez egoteko exilik,
 zerren zu eder izanagaiti,
 ez dot bapere bildurrik.³⁰
 Osaba³¹ jaunaz³² ezpazeonza,³³ 45
 jakin egizu niganik,
 alogoroak³⁴ oi neukala
 zuretzat ondo gorderik;
 oi haren serbitzaria³⁵ nax ta
 ez dot esango besterik. 50
 Oin-eskuetan muin egiozu,
 ez niri barriz burlarik.
 Fin

A27b

<1201r>

*Canción para cantar por alguna persona que a murmurado*Mari Lopezko *atrebidea*,³⁶²³ *hareantxe bat*: ‘handik bat hain zuzen, haietatik bat hain zuzen’.²⁴ *bila ze zatez*: ‘ez ezazu bila’.²⁵ *ipirdietan*: ‘ipurdietan’.²⁶ *deikeozu / erraz muin*: ‘erraz muin eman ahal(ko) diozue’.²⁷ *egiten jagot*: ‘egiten diot’.²⁸ *hobian datzan amari*: Hobian datzan ama Joan Perez Lazarragakoaren ama baldin bada, 1602koa da poema honen (eta ziur aski eskuizkribuaren) *post quem* data, ziur baitakigu urte horretan bizirik zela Elena Saez Erdoñakoa, poetaren ama. Izan ere, 1602ko “AHPA.Protocolos Notariales, 2486, ff. 85-86” dokumentuan oraindik bizirik agertzen da, Gervasio Di Cesare jaunak jakinarazi digunez.²⁹ *nigan mihirik badafinzu*: ‘nigan mihirik ipintzen baduzu, nitaz gaizki esaka aritzen bazara’.³⁰ *zerren zu eder izanagaiti, / ez dot bapere bildurrik*: Itxura batean, kontraesanean izan liteke bertso-lerro hau aurrekoarekin, aurrekoaren arabera pentsatzen baikenuen Mari Lopezko itsusia dela; horrela pentsatu du lerroarteko aldaketa egin duenak, *eder > ezaia* aldatu baitu. *Eder* irakurketa mantenduz gero, honela ulertu behar dela uste dugu: ‘zuk zeuk eder zarela esan arren, nik ez dut zure beldurrik, ondo baitakit ez zarela ederra’.³¹ *Osaba*: Ziur aski, Lazarragaren emazte Catalina Gonzalez Langarikakoaren osabaren bat bide da, horren aitonarenak (eta gero aitarenak) baitziren hala Arriolako Langarika jauregia nola Langarikako Langarika jauregia; baina ez dakigu zehazki nor izan litekeen.³² *jaunaz*: ‘jaunagaz’.³³ *ezpazeonza*: ‘egongo ez bazina’.³⁴ *alogoroak*: ‘ordaina’, hain zuzen Mari Lopezkoren esamesen aurkako ordaina. Ez dugu aurkitu forma honen beste lekukotasunik, baina euskarazko *alopera* eta gaztelaniazko *alouero*-rekin erlazionaturik izan behar du.³⁵ *serbitzaria*: ‘zerbitzari zintzoa, esanekoa’; hain zuzen gaztelaniazko *servidor*, eta ez ‘morroia’, gaztelaniazko *serviente*.³⁶ *atrebidea*: ‘errespetu gabea, lotsagabea’.

| | | |
|--|--|--|
| | <p><i>ez esan sekulan gaitzik,</i> <i>baldin gura ezpadozu</i>³⁷ <i>ez difinzuen tatxarik.</i> <i>Barbarik asko esan ei</i>³⁸ <i>duzu,</i> <i>ene ausenzian eginik;</i> <i>baia bardin</i>³⁹ <i>irabazi</i> <i>ez dozu hazaz onrarik.</i> <i>Zierto</i>⁴⁰ <i>hobato izango zan</i> <i>egon bazina exilik;</i> <i>oi bada bere, berba gureak</i> <i>ez dizu emun lekurik.</i> <i>Luzuriagan jaio zinean,</i> <i>Langarikan zaoz kalterik;</i> <i>oi gutxiago esaterako</i> <i>nik ez dot pazenziarik.</i> <i>Barbarik asko erraz dasaket,</i> <i>zuk hala merezidurik;</i> <i>zeure ahoan dozu agiri</i> <i>han ez dozuna freurik.</i>⁴¹ <i>Oi zu ederra izan ez arren,</i> <i>nik ez daukat beharrik;</i> <i>oi honegaiti, gatx esalea,</i> <i>ze eukakezu penarik.</i> <i>Zerren zu txipi izanagaiti,</i> <i>asko da galai galantik;</i> <i>oi Langarikan egonagaiti</i> <i>ez hartu soberbiarik.</i> <i>Amoraduok egonagati,</i> <i>eztao</i>⁴² <i>zure senarrik.</i> <i>Peru Errotzek asko dauko</i> <i>etsean seme galantik;</i> <i>hareantxe bat oi al badozu,</i> <i>bila ze zatez besterik.</i> <i>Uste badozu inon ez dala</i> <i>ha ta zu lako beste bi,</i> <i>ipirdietan deikeozu</i> <i>erraz muin biok alkarri.</i> <i>Juramentu egiten deusat</i> <i>adiketan duen</i>⁴³ <i>guztiorri,</i> <i>nigan mihirik badafinzu,</i> <i>ez egoteko exilik,</i> <i>zerren zu ezai</i>⁴⁴ <i>izanagaiti,</i></p> | <p>5</p> <p>10</p> <p>15</p> <p>20</p> <p>25</p> <p>30</p> <p>35</p> <p>40</p> |
|--|--|--|

<1201v>

³⁷ *ezpadozu*: Agian metrikak eraginda geratu dira bi ezezko (*gura ezpadozu* eta *ez difinzuen*), baina bakarra balego bezala ulertu behar da esaldia.

³⁸ *ei*: ‘omen’.

³⁹ *bardin*: ‘beharbada, seguru aski’.

⁴⁰ *Zierto*: ‘dudarik gabe, inondik ere’.

⁴¹ *freurik*: ‘bridarik, aho-uhalik; geldiaraziko zaituenik’.

⁴² *eztao*: ‘ez dago’.

⁴³ *adiketan duen*: ‘aditzen duen, entzuten duen’.

⁴⁴ *ezai*: ‘itsusi, desitxuratu’.

ez dot bapere *penarik*.
Osaba jaunaz ezpazeonza, 45
jakin egizu niganik,
alogoroak oi neukala
zuretzat ondo gorderik.
Oi haren serbitzaria nax ta
ez dot esango besterik. 50
Berba doilorrok gorde egizu,
ez niri barriz burlarik.
Fin

Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A27 – Mari Lopezko ederreza... (Gaurko grafiara egokitua)” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago